




Euskadiko gazteen iritzia bananduta daude Ukrainarentzat armak erostea eta ematea finantzatzeari dagokionez

Gazteek 4,4 puntuko balorazioa ematen diote, gerrari dagokionez, Europar Batasuna egiten ari den kudeaketari

Euskadiko 15 eta 30 urte bitarteko gazte gehienek (% 58,1) uste dute Europar Batasuna, Ukrainako gerrari dagokionez, ondo jokatzen ari dela alderdi batzuetan eta beste batzuetan gaizki jokatzen ari dela. Gatazka honen kudeaketan Europar Batasunari ematen dioten batez besteko puntuazioa 4,4koa da 0 eta 10 arteko eskalan.


Oro har, uste duzu Europar Batasuna ondo jokatzen ari dela Ukrainako gaian? (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2022ko martxoa)

Euskadiko gazteen % 72,3 ados dago Ukrainatik Europar Batasunera ihes egiten duten pertsona guztiei errefuxiatu bereziaren estatutua ematearekin, % 67,4 Errusiari ekonomia- eta finantza-zigorak ezartzearen alde dago, eta % 59,4 ados Errusiako hegaldi-konpainiei Europako aire-espazioa ixtearekin. Ukrainarentzat armak erostea eta ematea finantzatzeari kasuan, aldiz, gazteen iritzia oso bananduta daude, % 31 ados dago, % 36 kontra dago eta gainerako % 33ak ez daki edo ez du erantzun.


Europar Batasunak orain arte hartutako ondoko neurri bakoitzaren alde ala kontra zaude? (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2022ko martxoa)

Azkenik, gazteek ez dute iritzi garbirik gatazka horrek Europar Batasuna gehiago batuko ote duen galdetuta: % 35,7k baietz uste du, % 35,3k ezetz uste du, eta gainerako % 28,9k ez daki edo ez du erantzun.

Zure ustez, Ukrainako krisiak gehiago batuko du Europar Batasuna? (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2022ko martxoa)

Aurkeztutako datuek Gazteen Euskal Behatokiak martxoaren 11 eta 15 bitartean egindako inkesta baten emaitzak dira. Inkesta honetan 15 eta 30 urte bitarteko 4.046 gaztek parte hartu zuten.